

[USURBIL](#)

Sagardo Berria aurkeztu dute Astigarragan

Erredakzioa 2021-03-24 21:31



"Gure Sagador Berria" oihupean, Ander Gonzalez sukaldari eta "A Bocados" saioko aurkezleak 2020ko uztako sagardo berria aurkeztu du Astigarragan, XXVIII. Sagardo Berriaren Egunaren ospakizunarekin bat. Aurkezpenaz gain, sagardoaren kulturako esperientzien sustapenerako bideoa ere aurkeztu dute, sagardiaren kulturako aisialdiaz goatzeko proposamen ugariarekin.

Erribera Astigarragako Kulturgunean egin dute prentsaurrekoa eta Xabier Urdangarin herriko alkateaz gain, Ander Gonzalez sukaldaria eta beste hainbat ordezkari bildu dira. Urdangarin alkateak Aste Santuan ospatzen den sagardo berriaren dastaketa eta aisialdiak duen garrantzia azaldu du: "XIX. mendean eta XX. mendearen hasiera arte, Astigarraga eta Hernani modan zeuden beren sagardotegiengatik. Herritarren aisialdirako guneak ziren eta ohikoa zen bertan bertsolariak zein kanpoaldean tokan edo bolotan jolasten zebiltzan koadrilak topatzea. Tranbia erabiliz, Donostiako jende asko gerturatzen zen Aste Santuan eskualdeko sagardotegietara eta sagardo berria kupeletatik dastatzen hasten ziren". Modu horretan, Sagardoetxea Museoak Aste Santu honetan sagardoaren kulturaz goatzeko prestatu dituen esperientzien bideoa aurkeztu du: Museoa eta sagardotegia, Sagardoa eta Itsasoa, Sagarbike, Sagartrekking, Astigarragako bisitak bizikletan, Chillida eta sagardoaren kultura... horiek dira besteak beste, sagardoaren kulturaz goatzeko proposamenak.

Euskadiko Turismoari babesa emateko, Eusko Jaurlaritzak turismo bono sistema bat jarri du martxan. Javier Hurtado Sailburuak adierazi duenez, bono horiei esker herritarrek sagardoaren kulturaz nahiz beste turismo jardueraz goatzeko aukera izango dute eta sektorea indartzen lagunduko dute. Sagardoaren kulturako aisialdiko eskaintzari babesa ematen dion beste erakundeetako bat da Gipuzkoako Foru Aldundia. Iker Goiria Turismo zuzendariak honakoa esan du: "Sagardotegira joatea esperientzia gorena da eta benekotasuna daukan esperientzia ere bada". Horretaz gain, Sagardoetxeak sagardoaren kulturaz familian goatzeko duen eskaintza azpimarratu du.

Gipuzkoako Foru Aldundiak lan gogorra egin du azken urteetan bertako sagarrondoaren alde. Xabier Arruti zuzendariak esan du sagardogileen beharrak

entzun ostean, beraien erronka zen hemengo sagarrarekin egindako sagardoa lortzeko diru laguntzak bideratu dituztela, gure paisaian sagarrondoak ugarituz. Josu Garaialde zuzendariak sagardoa bezalako bertako produktuak sustatzeko martxan jarri berri duten "On egin" ekimenaren berri eman du. Ekimen horren helburu nagusia botilako sagardoaren salmenta indartzea da, besteak beste. Bestalde, Unai Agirrek, Axier Lizeagak eta Oihana Gainercainek aurtengo ekoizpenaren inguruko datuak eman, aurkeztu den sagardo berriaren ezaugarriak azaldu eta sagardotegietako protokoloaren berri eman dute.

2020ko sagardo uzta auzitan


2020eko uztarekin 8 bat milioi litro sagardo ekoiztu dira Euskal Herrian, horietatik 2 milioi litro inguru bertako sagarrarekin. Euskal Sagardoa Jatorri Izendapenaren egiaztapenarekin 1.200.000 litro sagardo ekoiztu dira. Guztira 48 sagardotegik egin dute Euskal Sagardora bideratutako sagardoa: Gipuzkoako 42k, Bizkaiko 4k eta Arabako 2k.

Honako hauek dira sagardoaren ezaugarriak:


- Aurtengo sagardo berria izaera eta gorputz handiko sagardoa da.
- Kolore horixka eta fruta usaina duen sagardoa da.
- Txinparta fina du eta ahoan biribila da.
- Konplexutasun handiko sagardoa da, bilakaera ahalmen handikoa.

Kultura

Erantzun ▼



Ikusienak



[IRUDITAN]
Tranpaldo
Irekian bikote
dantzaria

"Zero
neurketak"
errautegiaren
kutsadura
independente
ki neurtzeko
oinarria

Itxiera
perimetrala
eta
murrizketak
zenbait
sektoreetan,
gauerditik

"Zorotan
Bele",
auzolanaren
herri
ikuskizuna

602,41era igo
da
intzidentzia, 6
kasu
asteburuan

[IRUDITAN]
Tranpaldo
Irekia

Noaua Aldizkaria api

Noaua Aldizkaria api
24 [Usurbil](#)

[finkatu du](#)
[Zubietako erraustegia](#)

Noaua Aldizkaria api
26, 10:13 [Usurbil](#)

[aurrera](#)
[Koronabirusa](#)

Noaua Aldizkaria api
26, 14:10 [Usurbil](#)

Noaua Aldizkaria api
26, 11:41 [Usurbil](#)

Noaua Aldizkaria api
26, 12:45 [Usurbil](#)

Noaua Kultur Elkarte

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil
Tf: 943 360 321 | erredakzioa@noaua.eus
Codesyntaxek garatua



[HONI BURUZ](#)

[LEGE OHARRA](#)

[PUBLIZITATEA](#)

[ARAUAK](#)

[HARRERMANETARAKO](#)

[RSS](#)



Gipuzkoako Foru Aldundia



Gertuko informazioa, euskaraz

[AIARALDEA](#)

[AIKOR](#)

[ANBOTO](#)

[ATARIA](#)

[BALEIKE](#)

[AIURRI](#)

[ERRAN](#)

[EUSKALERRIA IRRATIA](#)

[GOIENA](#)

[GUAIXE](#)

[HIRUKA](#)

[KARKARA](#)

[MAXIXATZEN](#)

[PLAENTXIA](#)

[ALEA](#)

[28 KANALA](#)

[ANTXETA](#)

[BARREN](#)

[ERLO TELEBISTA](#)

[GEURIA](#)

[GOIERRI TELEBISTA](#)

[KRONIKA](#)

[MAILOPE](#)

[NOAUA](#)

[DEUSTUALDEA PREST](#)

[TXINTXARRI](#)

[URIOLA](#)

[UZTARRIA](#)

[AMEZTI](#)

[OIZMENDI TELEBISTA](#)

[Gurean](#)

[Plazanbazan](#)

[Itap](#)

[Tokikom publizitatea](#)